

# GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO BERRIKUNTZARAKO DEPARTAMENTUAK, SALAMANCAN EGINDAKO EKINTZAILEEN NAZIOARTEKO I. BILTZARREAN HARTU DU PARTE

*Departamentuak Salamancan egindako nazioarteko topaketan hartu zuen parte, Iñaki Ibarra Unzueta Aldundiko Berrikuntzarako eta Jakintzaren Gizarterako Sustapenaren zuzendari nagusiak emandako hitzaldiaren bitartez. Txostenak honako izenburu hau zuen: “Kultura ekintzailea sustatzeko ekimen integrala diseinatu eta garatzea, eta ekiteko jarduera horixe bera gizartean balioztatzea eta hedatzea”*

Duela gutxi, Ekintzaileen Nazioarteko I. Biltzarra egin zen Salamancan. Nido Fundazioak, bertako Unibertsitateak, Cotech Berrikuntza Teknologikorako Fundazioak eta Universidad Pontificiak antolatutako ekitaldi horrek bi helburu nagusi zituen: ekintzailearen irudiarekin lotutako agente guztiak (administrazioak –estatukoak eta autonomia-erkidegoetakoak–, enpresaburuak, gizarte-erakundeak eta unibertsitateak) bilduko ziren bilera- eta eztabaida-foroa sortzea, batetik; eta izpiritu ekintzailea hedatu eta sustatzera zuzendutako neurriak edo soluzioak eskaintzea, bestetik.

Ekintzailetza-arloan estatuko zein atzerriko adituak bildu dituen Salamancako biltzarrak bazuen beste helburu nagusia ere: erakunde publiko (administrazio zentrala eta administrazio autonomikoak) eta pribatuen (finantza-entitateen eta beste hainbat erakunderen gizarte-ekintza) ekintzaileen programen jardunbideak biltzea, eta ekintzailearen sormen- eta kontsolidazio-faseak nabarmentzea, nazioarteko lehiakortasunerako berritzeko eta ikertzeko premiari garrantzi berezia emanaz.

Ekintzailetza sustatzen egindako lan garrantzitsua eta azpimarragarriagatik ezaguna den Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzarako eta



Jakintzaren Gizarterako Sustapenaren Departamentuak Salamancako nazioarteko topaketan hartu zuen parte, Iñaki Ibarra Unzueta Aldundiko Berrikuntzarako eta Jakintzaren Gizarterako Sustapenaren zuzendari nagusiak emandako hitzaldiaren bitartez. “Kultura ekintzailea sustatzeko ekimen integrala diseinatu eta garatzea, eta ekiteko jarduera horixe bera gizartean balioztatu eta hedatzea” izenburua zuen txostenean, Ibarrak azaldu zuen Gipuzkoarren ustez gizarte lehiakor, iraunkor eta kohesionatu bat eratzeko, sormenean, berrikuntzan eta arriskuak hartzeko balioetan oinarritzen diren pertsona ekintzaileak –ideiak ekintzetan eraldatzeko eta proiektua kudeatzeko gai direnak– behar direla, eta hori guztia pertsonen inguruan eraikitako erakundetan egituratu behar dela. *“Horretarako”, azaldu zuen txostengileak, “berrikuntzara, ikaskuntza sustatzera eta ekintzailetzara zuzendutako estrategia definitu da. Eta estrategia horrek, hezkuntza-esparruak, arlo pertsonal, profesional, komunitario eta sozialean inizatiba duten pertsonak –guztiok, ahalmenez, ekintzaileak gara– hezi eta sustatu behar ditu”.*

## **Ezagutzan oinarritutako ekonomia**

“Kultura berritzailea eta enpresen sorrera” izenburua zuen mahai inguruko hitzaldian, Gipuzkoako Aldundiko Berrikuntzarako Sustapeneko zuzendari nagusiak bertaratuei honako hau azaldu zien: “Lisboako estrategia” onartuta, bere Departamentuak ezagutzan oinarritutako ekonomia duen gizartea sustatu eta eraiki nahi du, gizarte lehiakorragoa eta dinamikoagoa, ekonomikoki iraunkor hazteko gai izango dena, enplegu gehiago eta hobeekin, eta gizarte-kohesio handiagoarekin. Horrek, beste hainbat gauzaren artean, honako hau esan nahi du: *“ekimeneko eta enpresak sortzeko izpirituaren garapena, gizarte ekintzaile baten bilakaerarako bizi-estrategia gisa planteatzea.”*

Ondoren aipatuko ditugun elementuengatik nabarmentzen den eremu bati forma eman beharko litzaioke: ekiteko eta enpresak sortzeko izpiritua sustatzea; kultura ekintzailea bultzatuko duen eta arriskuak hartzea, sormena eta berrikuntza sustatuko dituen hezkuntza-esparru bat diseinatzea; mentalitate ekintzailea, parte-hartzailea eta enpresen sorrerara bideratutako mentalitatea dituen gizarte-ingurune bat sustatzea; unibertsitateek, zentro teknologikoez eta enpresek lagunduko duten berrikuntza eta ikerketako poloak sortzea; eta, azkenik, enpresak berrikuntzara, hazkuntzara eta lehiakortasunera bideratzea. Bestalde, izpiritu ekintzailea garatzeko lurralde egokiena nabarmendu beharko litzateke, merkatuaren eskaerei erantzuteko formula gisa enpresa-kooperazio zabaldia onartzeko gaitasunagatik, pertsonen protagonismoan oinarritutako kudeaketaren arloan erakunde aurreratuak garatzen laguntzeagatik, eta ete-entzako administrazio- eta arau-mailan egoera aproposagoa sortzeagatik.

Aurretik, eta abiapuntu gisa, Iñaki Ibarra Unzuetak azaldu zuen, pertsona ekintzaileen irudiaren aldeko giro kultural eta soziala garatu behar dela, pertsona horiek bereizten dituzten balioak sustatuta, hala nola, sormena eta arriskuak hartzea. Horrek guztiak,

erantsi zuen txostengileak, hainbat jarduera garatzea eskatzen du. Jarduera horiek, *“ekintzaitzaren aurrean euskal gizartean jarrera positiboa lortzera, gizartean enpresaburuaren irudia eta aitortzea indartzera, hezkuntza-sistemako mailatan gaitasun ekintzailea, eta honi lotutako balioak eta jarrerak, garatu edo indartuta giza kapital ekintzailea sortzera bideratuak daude.”*

## **Emozionalki gizarte azkarra**

Hitzaldian, Iñaki Ibarrek ere bertaratuei azaldu zien Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoa gizarte ekintzaile eta emozionalki azkar bateranzko eraldaketa zuzendu nahi duela, hezkuntza, familia, gizarte/komunitate eta enpresen esparruetan ikaskuntzaren eta ekintzaitzaren aldeko baldintzak bultzatu eta kudeatuta. Horrek, Ibarraren ustez, honako helburuak ezartzea eskatzen du: ikaskuntza bultzatzea; Gipuzkoako Foru Aldunditik bertatik ekimen-gaitasunaren balioaren, udal-mailako harremanen, Unibertsitatearen eta enpresa-mailen inguruan sentsibilizatzea; bertan dagoen enpresa-ezagutza bereizgarria zabaldu eta transferitzea; balio-kate osoan (hezkuntza/akademia, familia, gizarte/komunitate eta enpresako inguruneak) ekintzaitza babestea, sistemako gainerako agenteekin elkarlanean; eta, azkenik, emakume ekintzailea bultzatzearen inguruan aipamen zuzena eta bereiztua egitea.

Hitzaldia amaitzeko, txostengileak azaldu zuen ekitea kontzeptuak, gure inguruan dugunarekiko konpromisoa eta iraunkortasuna gogora ekartzen dituela; baina, batez ere, bizitza osoan zehar etengabeko ikaskuntza pertsonala onartzen dela adierazten duela. Horren haritik, edonor ekintzailea izan badaiteke ere, pertsona batek horretarako balio, jarrera eta eskuduntza egokiak garatu behar ditu. Pertsonen, erakundeen, eta gizarte iraunkorrago eta kohesionatuago baten garapen pertsonal eta profesional hobe eman daitezen lagundu dezaketen eta behar duten balioak garatu behar dira. Horrek guztiak, esparru pertsonal, profesional eta sozialean egin behar den lana garatu beharra eskatzen du. Eta, kasu horretan, hezkuntza-esparrua oinarritzko agenteetako bat da. Ibarrentzako, *“ekitea, enpresak sortzea baino urrunago doan aditza da –jarrera bat, balio batzuk, ekintza batzuk–. Garrantzitsua da ekimenaren zentzua eta enpresa-izpiritua bereiztea, eta gure ikuspuntutik lotzea. Eta, lehenak bigarrena errazten duela uste dugu. Baina bestelako jarduerak eta, ikaskuntza-komunitateak eta ekintzaitza kooperatiboa bezalako kontzeptu berriak behar dituzten bi helburu dira. Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzarako eta Jakintzaren Gizarterako Departamentuan uste dugu enpresa-garapen berriak sortu, bultzatu eta kudeatzea lan zaila bezain liluragarria dela; eta naturaltasunez ezartzen lagunduko duen giro egokia behar duela, hezkuntza- eta gizarte-mailan. Ildo horretatik, ezinbestekoa da hezkuntza-munduak, hezkuntza-komunitate osoak –zuzendaritza, irakasleak, ikasleak eta familiak–, beste hainbat agenteren oinarritzko laguntzarekin, ikasleen artean maila guztietan gaitasun, jarrera eta bertute pertsonalak sustatzea, erakundeetan mentalitate ekintzailea eta*

*parte-hartzailea bultzatzeko. Horretarako, trebetasun- eta jarrera-multzo konplexua erakusten duten jarduera espezifikoak behar dira pertsonen ingurune aldakor berri bati jarrera positiboarekin aurre egin diezaioten. Eta, azken batean, iniziatiba duten pertsona ekintzaileak euren etorkizunaren protagonistak izatea eragingo dieten balioen multzoa behar dute, aurrerabide iraunkor eta kohesionatu batera zuzendutako ezagutzaren gizarte batean”.*